



Hezkuntza Sailak argitu beharrekoak

Bizi dugun egoera lazgarri honetan Hezkuntza Sailak argibideak eman beharko lituzke, lehenbailehen, honako gai hauen inguruan:

- Zenbait prozesu martxan daude (Birmaremazioa, Zerbitzu eginkizunak, Lekualdatze Lehiaketa, EPE...). Hauetariko askotan tramite asko presentzialki egin behar dira baina langileek zailtasunak izan ditzakete delegazioetara eta Zuzeneaneko bulegoetara hurbiltzeko. Zein izango da martxoaren 14ko, 463/2020aren hirugarren xedapen gehigarriaren eragina EAeko Hezkuntza Sailean?
- Ordezkapenak ez betetzeak ikasleen hezkuntza eskubidea urratzen du, orain inoiz baino gehiago. Beraz, Hezkuntza Sailari ordezkapenak betetzen jarraitzea eskatzen diogu.
- Ordezkapenak ez betetzeak, ikasleen oinarrizko eskubidea urratzeaz gain, egoera asko korapilatzen du. Zein egoeratan egongo dira ikasle horiek eskolara bueltatzen direnean? Irakaslea izango dute titularrak bajaran jarraitzen badu?
- Matrikulazio behin behineko zerrendak bihar argitaratuko beharko lirateke. Zein prozedura erabiliko da jakinarazpenetarako? Epeak moldatuko al dira?
- Ikuskarien bitartez Hezkuntza Sailburuordearen irizpideak ez dira modu homogeneoan helarazten ari ikastetxe publikoetara, langileek bete beharrekoen inguruan bereziki. Argibide publikoak beharrezkoak dira. Sarritan irizpide hauek talka egiten dute sailburuordetza ezberdinen arteko jarraibideen artean.
- Telelanerako baliabideak eta informazioa behar dira ikastetxeetan.
- Ebaluazioak, notak...berehala datoz. Nola bideratuko dira?
- Zenbait aplikaziotan sartzeko etxetik sartzeko aukera ireki behar da: Eizu edo gestio ekonomikoarena adibidez.
- Zein da heziketa bereziko hezitzaileen egoera gaur gaurkoz?
- Haurreskoletako langileen egoerak ere berehalako argibideak behar ditu.

Honetaz guztiaz gain, EAeko hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxeen arteko aldeak nabarmenegiak izaten ari dira beraien ikasleei hezkuntza eskubidea bermatzeko garaian. Egoera zailenean dauden familietako umeen hezkuntza eskubidea bermatzeko ikastetxe publiko askotan egiten ari den lanak aparteko aipamena merezi du, bereziki egoera honetan dauden familia kopurua handia den eskoletan. Baliabide gabezia nabarmena izaten ari da hezkuntza komunitate askotan eta egoera honi aurre egiteak langileen ikaragarritzko inplikazioa eskatzen du.

Koronabirusak sortutako egoerak agerian utzi du gure hezkuntza sistemak bizi duen aukera berdintasun eza: arrakala teknologikoa, jantokia,... Horregatik, Hezkuntza Sailari egoera honetan dauden ikastetxeetan arreta berezia jartzea eta baliabidez hornitzea eskatzen diogu.

Euskal Herrian, 2020ko martxoaren 16an

www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus